

URREZKO GIZONA

RUBÉN DARÍO



© Marjinalia Bilduma
© Itzulpena: X. Galarreta
1999. urtea
Lege-Gordailua: SS-1316/99

I

Erroma, Tiberio Zesarren inperiopean. Gau ederra; eta zerua, konstelazioz harro. Apiar Bideko forotik eta Hiru Tabernetatik hurbil, sigi-saga zihoan kalezuloak (bide nagusitik adarkatuta) jende gutxiko auzo bateraino zeraman (Brindisi-tik, Capri-tik eta antzeko herri apaletatik zetozen itsas gizonak eta txikikako merkatariak besterik ez zebiltzan bateraino). Etxeak, edo hobeto esan, etxola makalak — pilatuta— eta haiek zatitzen zituzten bideska bihurriak, ez ziruditen berariaz itxaropentsuak eta erakargarriak tristurazko eta isiltasunezko bazter txiki hartan, noiz edo noiz liskar bat edo beste lehertzen bazen ere (ardo-saltzailereren baten dendan edota plebearen emagalduren baten bizileku mixerablean).

Gau argitsu eta konstelazioz jositako hartan eta kalezulo hartatik, tarteka-marteka, misteriotsuki, bata bestearen atzetik hainbat gizon eta hainbat emakume igarotzen ziren. Harriz eta oholez osatutako etxe bateko ate meharretik sartzen ziren, errautsitako egoitza baten zimenduen artetik. Urrats nekatuez, atso bat heldu zen azkenik, gizon baten besotik helduta. Barrura sartu baino lehen, biak bueltatu ziren kalezulo-hondorantz luzaro begiratzeke.

—Luzila bere nebaren bila joan da —esan zuen gazteak—. Nereo Ostiara abiatu zen duela

hiru egun. Luzila hiriko sarrerara joan da harekin elkartzera.

—Ea heldu den gu baino lehenago...

Barrura sartu ziren. Oraindik ere atsoaren aurpegia agertzen ikusi zen, artega, itzalean haztamuka, eskuina bixera-moduan jarrita, gaueko urruntasuna begi-niniekin zulatu nahian, bere hankak bezain unaturik.

Etxe barruan horra hor zer ikusten zen, buztinezko hiru lanpararen argitan.

Eserleku trauskiletan eserita, gizonak eta emakumeak, hainbat adinetakoak eta itxura desberdinekoak, agure baten inguruan pilaturik zeuden (agurea indartsua zen eta hazpegi kementsuak zituen; tunika gris eta luzea janzten zuen, artilezko lokarri baten bidez giltzurrinei lotuta. Adatsak — zilar ilunezko bi hegal luzetan erdibituta— sorbaldak ukitzen zizkion. Ezkerreko hegalak ez zuen lortzen lepoko orbana eta zeharo falta zitzaion belarria ezkutatzea. Gizon haren belaunen gainean larruzko erroilu bat zegoen, loturik, oraindik ere ireki gabe).

Atsoa eta honen laguna heldu zirenean, etenda geratu zen kontaketa entzuten ari ziren haren ezpainetatik. Denak zutik jarri ziren eta heldu berriei musu eman zieten anaitasunez.

—Eta Luzila?

—Luzila bere nebaren bila joan da, gaur Ostiatik etorriko da-eta.

Emakume batek —grekoen erara jantzita—, eta bidaiaren seinaleak bere jantzian begi-bistan zituenak, esan egin zuen:

—Kaira zihoala harekin egin dut topo. Esan dit: «Febe, abegitsu horrek, eramaiezu nire bake-musua gure anai-arrebei.».

—Orduan, Luzila ez da gaur gauean gurekin izango —esan zuen bertaratuetariko batek—. Horrela, o Santu Malko hori!, gure aitaren eskutitza irakurtzen hasi ahal izango zara.

—Oraindik goiz da, Anplias —ihardetsi zion besteak—. Eta diakono maiteak bere kontaketarekin jarrai dezake; bien bitartean, Luzila-ri gurekin elkartzeko denbora emango diogu, gogotsu etorriko baita. Gure maisuari dion maitasuna seme-alabena ez al da? Gure alde eginik bere gutunetan bereziki igortzen dizkigun agurretan hartaz ahazten al da?

Beraz, diakonoak bere kontaketari horra nola birrekin zion.

«... Une hartan, esan dizuedan bezala —apaiz nagusiaren mirabe horrek, arima bete ezazu

bekatuz, behin baino gehiagotan deabruak ostatu hartu baitzuten bertan—, une hartan, Zedron-en aldeko haizearen hatsaldia gugana heldu zenean, errekaen alde hartan zegoen baratzeke olibondoan arnasaz bustita, nire izpirituaren barrenean zerbait iratzartzen balego bezala sentitu nuen. Ez, grazia sakratuaren tximista artean heldu gabea zen; hala ere, zerbaitek esaten zidan: «Zaude, Malko, izulaborri dibino eta konkistatzaileok!». Zuhaitz azpira heldu ginen... O, gaua, nire begiek oraindik ere negar dagite!... Fariseoen eta apaiz nagusien soldaduak zuhur zihoazen, beren argiekin. Aurrean Traidorea zihoan. Nik, haren ondoan, linterna bat neraman. Orduan agertu zen, itzalean zurbil eta miragarriro argitsu, gure Jesus. Esan zuen: «Noren bila zabilzate?» «Nazareteko Jesusen bila.» Eta Jesusek esan zuen: «Ni naiz.» Lurrera erori nintzen haizete batek jaurkita bezala. Inguruan begiratu nuen: denak lurrean zeuden ni bezala... Berrito ere galde egin zuen: «Noren bila zabilzate?» «Nazareteko Jesusen bila.» «Hala diotsuet: ni naiz; baina nire bila bazabilzate, ez egin kalterik nirekin datoze-nei.» Une hartan, Saltzaileak musu eman zion. Eta une hartan, Pedrok burua ezpataz zauritu zidan; eta Jainkoak bihotza urrikaltasunez.»

Diakono santuak azken hitzok amaitu zitue-
nean, denak geratu ziren isilik. Diakonoak, poliki-
poliki, pergaminozko erroilua askatu eta zabaldu
zuen, eta ahots lasaiaz irakurtzen hasi zen.

«Paulo, Jesukristoren mirabe, apostolua izatera deitua, Jainkoaren ebanjeliorako bereizia, halaze agindu zuen hark lehenago, haren seme Jesukristoren Eskritura Santuetan Igarleen ahotan, gure Jabe Jesus, David-en hazitik sortu zena, haragiaren arabera, eta Jainkoaren seme aldarrikatu zutena. Santutasunaren izpirituari jarraikiz, hildakoak berpizteko boterearekin; haren bidez grazia eta apostolutza jasotzen baititugu; fedea narrazio guztietan errespetatua izan dadin, haren izenean; haien artetik zeuek ere bazaudete, Jesukristok deituta: Erroman zaudeteno, Jainkoak maite zaituztenoi, santuak izatera deituak izan zaretenoi: eskerrak zuei eta izan bedi zuekin gure Aita Jainkoaren eta Jesukristo Jaunaren bakea. Lehendabizi, nire Jainkoari eskerrak eman nahi dizkiot Jesukristoagatik, zuek guztiok direla-eta, zuen fedearen berri zabaldu baita mundu osoan zehar. Zeren Jainkoa dut lekuko, haren zerbitzurako bainago haren Semearen Ebanjelioan, etengabe zuetaz oroitzen bainaiz nire otoitzetan; arren ta arren, une honetan nolabaiteko amaiera izan beharko balu ere, Jainkoaren borondateagatik, bidaia ezin onuragarriagoa zuenganatzeko. Izan ere, biziki desiratzen dut zuek ikustea zuekin guztiokin dohain izpiritualen bat erdibanatzeko, konfirmatuak izan zaitezen; jakitera eman daitekeenez, zuekin batera kontsolamendurik izan dezadan, elkarrekiko fedeagatik: zuena eta nirea batera.» Diakonoak arnastu eta esan zuen:

—O Gure Jaunarengan bilduriko ene anai-arrebok! Ikusten duzueenez, gure maisu eta zuzen-

dari Paulok, beste behin, bere bihotzaren sendotasun gozoa erakusten digu. Badakit bera maite eta gurtzen duzuela.

—Zu, Canchreas-en opari santuarekin heldu berri zaren arreba horrek, nola begiratzen diozu Paulori?

Fabek erantzun zion:

—Brontzeko dorre izugarri altua bailitzan begiratzen diot.

—Zuk, Epenesto, Acaya-ko lirioa zaren horrek, nola begiratzen diozu?

—Jainkoaren ekaitzak lotan dautzan haritza bailitzan begiratzen diot.

—Eta zuk, Priszila?

—Nire Jainko Jaunarenganako laguntza sakratua bailitzan.

—Eta zuk, Olinpas?

—Paulo nire mendia da; itzalaren freskota-suna, ur gardena, eta lehoiaren aho santua aurkitzen ditut nik harengan.

—Eta zuk, Filologo?

—Paulo trumoia da; beldurrez maite dut eta haren mihinaren ekaitzaren aurrean umiliatu egiten naiz.

—Eta zuk, Paulok begirunez musu ematen dizun horrek, zure seme Rufori bezala?

Atsoa artega dago Luzila oraindik etorri ez delako, eta erantzun zuen:

—Maite dut! Niri, antzara gaixo honi, fenix santu horrek ama deitzen dit!

—Eta zuk, Rufo?

—Nire anaia litzatekeen arkanjelua bailitzan begiraten diot.

—Eta zuk, Hermes?

—Jesus aurkitzera gidatzen gaituen izarra bailitzan.

—Eta zuk, Flegonte?

—Aizkora, aizkora izugarria da! Moztu dezala pozoinduriko enborra!

—Eta zuk, Asyncrito?

—Nik ez dakit hitz egiten. Diot: Paulo! Besterik ez.

—Eta zuk, Perside, fedearen adats horrek?
nola begiratzen diozu?

—Saula deitzen zidan: hari esker Perside
naiz.

—Eta zuk, Herodion zintzoa?

—Odol bera dario gure haragietan zehar, eta
hari esker, sinesmen bera gure arimetan zehar.

—Eta zuk, Stakis?

—Ni haren haize-zirimolaren erdian harri-
kozkorra baino ez naiz.

—Eta zuk, Androniko?

—Juniarekin batera, kartzelan lagun egin
nion: odol berekoak gara, Herodion-en antzera:
haren maitasunagatik ari gara lehian. Hark bere
borondatearen hegalaldian altxatzen gaitu. Zer egin
dugun? Jainkoaren ahotsa entzun.

Eta zuk, Maria?

—Nik nire Jauna bailitzan begiratzen diot.

Eta Malkok:

—Bedeinka dezagun Jaunaren borondatea: eta joan daitezela Corintora gure oroitzapenak; eta Paulo izena, gure otoitzen bidez, Jesukristo Gure Jaunaren zerura. Amen.

Eta begiak berriz pergaminoari atxikiz, irakurtzen jarraitu zuen:

«... Baina ez dut nahi, anai-arrebok, zuek ez jakitea askotan zuengana itzultzen saiatu naizela — orain arte hainbat eragozpen aurkitu baditut ere—, zuen artean ere fruituren bat izateko, gainerako jentilen artean bezala. Bai grekoekin bai barbaroekin, bai jakintsuekin bai ezjakinekin, zorretan nago. Beraz, niri dagokidan bezainbatean, Erroman zaudetenon artean ere prest naukazue Ebanjelioaren berri zabaltzen hasteko. Izan ere, ni ez naiz Jesukristoren Ebanjelioaz lotsatzen, sinesten duenak hortxe aurkitzen baitu Jainkoaren boterea, salbaziorako beharrezkoa: juduak lehenik eta baita grekoak ere. Zeren hari esker Jainkoaren justizia fedez fede azaltzen baita, idatzita dagoen bezala: justua fedegatik biziko da. Jainkoaren haserrea Zerutik agerian jartzen delako, fedegabetasun eta injustizia ororen aurka: Jainkoaz ezagutu dezakeguna, haiengan agerian dagoelako; Jainkoak horren berri eman dielako. Harengan ikustezinak diren gauzak, munduaren sorreratik ulertutzat hartzen direlako; eginak diren gauzen bidez, argi eta garbi ikusten dira, jakitera ematen denez, haren betiereko boterea eta jainkotasuna, aitzakiarik gabe gera daitezten. Zeren Jainko aldarrikatu bazuten ere, Jainko gisa loriatu ez zute-

lako, ta eskerrak ere ez zizkioten eman: aitzitik, euren hitzaldietatik desagertu egin ziren, eta horien bihotz ergela goibeldu zen, jakintsuak zirela esan arren, zentzugabeak bilakatu ziren, eta Jainko ustelzinaren loria gizon ustelgarriaren truke aldatu zuten, eta hegaztien truke, eta lau hankako animalien truke, eta narrastien truke. Hargatik, Jainkoak ere lohikeria eman zien oparitzat, bihotzetik zerien gutiziei zegokien bezala...»

Bat-batean atea indarrez ireki zen: denak zutik jarri ziren harri eta zur; eta neska bat sartu zen, ia-ia neskatoa, zuria, ilea harrotuta, dardarka, deiadarrez:

—Laguntza! Babes nazazue, Jesus Gure Jaunaren izenean!

Denek hots egin zuten:

—Luzila!

Momentu hartan, bi erromatar zaldunen toga luxuzkoak agertu ziren, eta horien gainetik ardoak alaitutako bi aurpegi, horietako baten ahotik (adinez sartutako gizon batena zela), barre-algara handia jalgi zen. Eta besteak esan zuen:

—Fauno zintzoa!

II

Bide Sakroan, gizaseme dotoreak paseatzen diren orduan, edo aristokraziaren jai zalapartatsuetan, Forum-ean, edota udalekuetan eta modako bainuetxeetan, galdetu izan bazenute nor zen alaiena, adeitsuena, xahutzaileena, goi-mailako gizarte erromatarraren gazterik mundukoiena, ziur nago Kinto Flavio Polion zela erantzungo zizueketeela. Adinik onenean zegoen, eta bi eskuekin heltzen zien bere bizitzako lorategiko lorerik freskoenei; oraindik bazuen denbora bere pretestaren zerrenda purpurakara arrandiaz erakusteko, eta maitasun garbiaz eta bere aita gorenaren dirutza itzelaz gozatzeko. Izan ere, zituen indar fisikoa, edertasuna eta osasuna harengandik heredatu zituen. Horaziok laudatu eta Virgilioren babesle izan zen bere aitona Cayo Asinioarengandik, berriz, buruzko argitasuna eta arte eta letrekiko zorionezko grina zituen. Bidaiatu egin zuen, batez ere Grezian zehar, eta bolada batez Galia Transpadanoan bizi izan zen, bere arbaso itzaltsua herrialdea administratzen aritu baitzen, Antonioren mesedetan, kontsul-dignitatera goratua izan baino lehen.

Kinto Flavio, hiriko bizimoduaren nekeek eta gaztaroko nahigabeen asaldurek nekatzen zutenean, Tiburren zeukan egoitzara joaten zen bakea eta gozamen lasaiagoen bila, egoitza ederra eta dotorea baitzen, bi urte lehenago Lidiaren maitale lirikoari babesa eman zion etxalde apaletik ez oso urrun, baserri-giroko lasaitasuna aurkitzeko irrikan, eta musen lagunartean bizi izan nahirik.

Etxaldea Lukretiloren magalean zegoen ia, lur emankorretan, alderdi oso ederrez inguratuta. Handik Erromako ikuspegiak beha zitezkeen, hango altuera eta kupuluekin. Jabearen gustuaren zuzendaritzapean, arkitekto apart batek eraikitako egoitza bikaina zen eta, proportzio handikoa ez bazen ere, bertoko errefinamenduen artean hamabi bat ostalari hartzeko aski lasaia eta eroso zen. Zaldiz, edo ibilgailu erosoak erabiliz, hiru ordu t'erditan erraz iristen zen hirira. Erromatik hurbil, Kinto Flaviok bere ondasunetik ordaindutako zalditegi bat zeukan; horrela, bai berak bai bere gonbidatuek “collegia jumentatorium”etako eragozpenak saihestea zeukaten, posta-establezimendurik gehienak gaizki zerbitzatuta baitzeuden, bertoko jende berritsuen promesak gora-behera eta ate handiak eta ezkaratzak apaintzen zituzten arrano eta kurrilo esanguratsuak gora-behera.

Bere zaletasunei —eta neurri batean, baita modari ere— jarraituz, halako gustu greko batez, gazte adoretuak bere landako egoitza eraikiarazi zuen. Urrutitik xarmant ikusten zela, eraikinaren fatxada zuria altxatzen zen, zeinaren zutabe lirain eta finen aurrealdea nabarmendu egiten baitzen ondoko zuhaitzien orban horlegiaren artetik. Sarre-ratik eskualdera, estatuaz eta ontzi loretsuz apainduriko terraza eder bat hedatzen zen; ezkerraldean, luxuzko mahasti batek bere adats bihurri eta oparoa korapilatzen zuen, itzal fresko eta delizioso eskainiz. Harantzago, platano zarratuko zumardi luzeak dar-dar egiten zuen eta aurkako haizeetan kulun-

katzen zen. Barrutik den-dena zen printzeluxuzkoa; eta halaber, jabeak erakutsitako fantasia-
ren arabera ordenatuta. Lehenik sarrerako egongela, marmolez osorik apainduta, konbinaketa polikromoen bidez, eta kolore ezin ederragoarekin mosaikozko zoladuran. Tamaina handiko Apolo batek eta Eros batek esparrua edertzen zuten, eta bertoko altzariak jauregi zesareoetakoekin lehia zitezkeen. Ate altu batek “triclinium-era” edo jangelara zerraman, hiru mahai luze —garaiko ohituren arabera— zituena. Mosaikozko zoruak —porfido gorritz eta antzinako harri horiz osatuta— konbinaketa geometriko harmoniatsuak sortzen zituen. Alboetan, airea eta argia sartzen uzten zuten leihoetatik hurbil, jainkozko irudi txikiak kokatuta zeuden nitxoetan. Arte finez egindako mahaiak zilarrezko eraztunez jositako bolizko zutabe meharretan sostengaturik zeuden; eta gonbidatuentzako ohantzeak artelanak ziren. Aldamenean, tutuek eroanda, eta marmolezko taza handi batean, ura, musikaltasun handiz, zerion, diamantezko urjauzi etengabea bailitzan. Gero, egoitza barrenean hedatzen ziren geletan, liburutegia zegoen, olerkari greko eta latindarrez ondo hornituta; logelak, estatuaz eta mosaikoz edertuta, purpuraz eta zetaz apainduta; bainugela, marmolezko maskor handia iduri, eta hormetan naturaltasun eta grazia handiko pinturak eta irudi erotikoak.

Han, bere bakarlekuan, zorioneko mutil aberats eta “dilettante-ak” urrezko orduak igarotzen zituen, laguntzen zioten adiskideekin, bere sukalda-

ri apartarekin, maitale batekin edo besterekin, eta morrointzako jendearekin.

Terrazan, ilunabar miresgarri haietariko batean, larruzko etzalekuetan etzanda, Polion eta beste hainbat lagun zeuden, bolada batez lagun egitera etorritako ostalariak, hirian zituzten etxeetan Bona-ko jaiak egiten ziren bitartean, emakumeek euren errito misteriotsuez ospatzen zituztenak. Horra hor zein lagun ziren: Axio, zenturioia, hogeita hamar bat urteko gaztea, Judea-tik heldu berria; Lizio Varo, olerkaria, gutxi gora-behera Polion-en adinekoa, plazer eta bidaietan ohizko kideak baitziren; eta Akrino, hiruretan gazteena, edertasun goraiatuko eta adimen aparteko mutil gaztea, ama grekoa eta aita erromatarra zituena. Bakoitzarengandik hurbil, pikuz, udarez eta sagarrez beteriko frutontziak jarrita zeuden: eta noizean behin, esklabu bat pasatzen zitzaien kopa bat ardo zekubo gozoa eskaintzera.

—Leku ederra, hala Jainkoa! —hots egin zuen Axioek burua goratuz, piku bati horzka eginez eta inguruak begiz joz—. Muin hurbil eta alai horiek beren uhindura horiekin bular-segida iruditzen zaizkit.

—Zibeles-en indarra da —esan zuen Varo-k begirada zeruertzeko punturen batean finkatuz, eskuin aldean, non altxatzen baitziren —sartaldeko eguzkiak zauritzen zituen gailurren dardar arrago-ubelean— mendi sabino miresgarriak.

Bat-batean, Polion-ek esan zuen:

—Zin egiten dizuet askotan pentsatu izan dudala bakarleku honetan betiko geratzea; ez itzultzea Erromara, bizi izatea izadiaz miretsita eta bat eginda. Lukrezio-k arrazoi handiz esaten zuen zuhaitz mardul baten azpian etzanda egotea baino plazer handiagorik ez zegoela, erreka gardenaren kantua entzuten.

—Barraskiloaren antzera bakar zaitezke, edo gimnosofistaren bizitza egin —erantsi zuen Akrino ilehoriak ozenki barre eginez, eta erdijainko batena zirudien bere zurda kizkur, arranditsu eta urre-kolorekoa astindu zuen.

Eta Axio-k, ahots burlatiz:

—“Hic jacet Vatia”.

—Egia esan —jarraitu zuen Polion-ek—, Servilio Vatia-ren etsenpluari jarraitu nahi nioke. Jainkoek plazerra bezalakorik ezin izan dute sortu edo asmatu, hortaz ez dago zalantzarik; eta eztabai-daezina da Erroma plazer-paradisua itzela dela. Beraz, Erromako deliziak ahitu ostean aurkituko dugun hondar garatzak neurri berekoa izan beharko du. Lukrezio-k berak beste egia biribil bat ematen digu aditzera, plazer-iturrietatik orotatik mingostasuna sortzen dela baieztatzen duenean.

Akrino-k kopa altxatu zuen:

—Topa egiten dut “Desplazerraren” mozo-
rro itsusia nire begiek sekula ikus ez dezaten, eta
“Parkak” nitaz oroi daitezen ni Batta zaharraz
oroitzen naizen adina.

Eta Polion-ek:

—Zaude isilik, nire Akrino zintzoa. Zu
oraindik ere udaberriaren hasieran zaude; zauri
guztietatik babesten zaituen gaztaroaren jainkozko
koraza duzu; Desplazerrak berak ezin zaitu bere
itzalezko besoaz ukitu; Orduak arrosekin koroatzen
zaituzte; Grazien maitasuna duzu; Venus-ek, ezpai-
netan irribarrea duela, zure opariak hartzen ditu.
Arrosakara eta loretsua, haren seme Eros bezalakoa
zara. Baina zuri ere helduko zaizu Denborak bere
adur txarreko opariak ekarriko dizkizun eguna.

—Zorionak —esan zuen zenturioiak ardo-
zurrupada galanta ahituz—, erabateko zorionak
gaztaroak baino ez digu ematen. Gero, gizakiak
hala-holako gozamina baino ezin du hartu.
Alexandro ez zen zorionsua eta Alexandro-ren
loriaren jabea zen. Legioak, kanpainen garaipenak,
arrano garaileak, mundua menperatzea? Alexandro
ez zen horrekin guztiorrekin zorionsua.

Akrino-k xuxurlatu zuen:

—Alexandroren gorputzari lurrin gozoa zerion.

Eta Polion-ek:

—Aristoxeno-k behintzat hala baieztatzen du “Komentarioak-etan”.

Eta Varo-k:

—Musek, nire aburuz, ematen digute benetakoz zoriona. Euren babestuak lore hilezinez ko-roatzen dituzte; haiei esker, izen horiek denbora azpiratzea lortzen dute, maitasun-kontuetan laguntzen diete eta monarken eta boteretsuen laguntza eskuzabala eskaintzen diete.

—Homero-ren garaietatik, poesia eta mixeria gauza bera dira —erantsi zuen militarrek.

—Baina hemendik ikusten den etxe haren jabea ez da Suburra-ko eskalea izan, berariaz —esan zuen Varo-k, Horazio-rena izandako estantzia altxatzen zen muino hurbil alderantz seinalatuz.

—Uste al duzu Horazio gizon zoriontsua izan zela?

Eta Kinto Flavio Polion-ek, irri mingots batez:

—Lidia-ko kantorea gizon zoriontsua izan ez zela esan dezaket nik. Jada zaharkiturik zegoela ezagutu zuen nire aitak, nire aitona ospetsuaren etxean hain zuzen, zeren dakizuenez, azken urteetan, gerlari- eta politikari-nekeetatik atsedean hartzeko, gehien maite zuen zaletasunari heldu baitzion gorputzez eta arimaz: letrei. Horazio-ri mesede pertsonal bat baino gehiago egin zizkion, eta bataren adiskidetasunaz eta bestearen mirespenaz elkarturik adiskide-minak izan ziren hil arte. Egun batean, olerkariak bere lagunari egindako konfidentzia mingotsak entzun zituen nire aitak. Lagunok, entzun ezazue esatera noakizue: Horazio Suburra-ko eskalea baino zorigabeagoa izan zen.

—Eta Mezenas? —esan zuen Varo-k.

Polion-ek soin osoa altxatu zuen panteralarruaren gainetik eta erantzun zuen:

—Bada, Mezenas-en erruz, hain zuzen.

—Ba al dakizue nire aitak zer entzun zuen? Agure lorioso gizarajo haren kexak entzun zituen, bizitza osoa igaro baitzuen alaitasunaren mozorroa jantzita, suge ankerrek arimari kosk egiten zioten bitartean. Ondo dakizuenez, ez zen patrizio familiakoa; beraz, behin baino gehiagotan jasan behar izan zituen umemoko dorpe eta dotoreen erdeinuak eta ongi orraztutako histrioi gorenena. Jakin ere badakizue izaeraz gizon aske eta eskuzabala zela eta Mezenas-ek urrezko uztarria jarri zion lepoan.

Eta ez pentsa uztarri hori hain aberats eta bikaina izan zenik. Itzul ezazue begia etxe honetara eta esaidazue Kreso-ren jabetzakoa izan zitekeen. Gauza jakina denez, gure liriko ospetsuak Erroma-ra egiten zituen joan-etorriak buztanik gabeko mando baten gainean baino ez zituen egiten. Gero, Mezenas-ek bere arrandia-medio umiliatu egiten zuen; eta harengandik zetozkion mesedeak daktilo eta pirrikioen bidez saritu beharra zeuzkan. Gizon paregabe eta onberak sestertzioak jasotzen zituen eta urre-koloreko txarrantxari horzka egiten zion; eta buztanik gabeko zamari hartaz mendekatzeko, Mezenas gorai patu eta Zesar-ri abesten zion, Pegaso zaldiaren gainean. Eta olerkari moduko bere haserrearen erdian, lausenguak zukutzen zituen azken tantaraino eta bere babesle aberatsari “bere altxorra”, “bere itzala”, “bere loria” deitzen zion. Eta bera ahal zuen guztia nimiño agotzen zen, bera, olerkaria, eta beraz jaiotzez aristokrata eta printzea, Dario-ren jauregiak eta Ekbatana-ren distirak gutxitzat hartuko zituen hura bera; eta bakarleku apal honekin nahikoa zeukala esaten zuen, eta zerraman hala-moduzko existentzia garaipen eta altxor guztiak baino atseginagoa zuela. Izan ere, berak gauza guztiei aurkezten zien aurpegi irribarretsua; baina bere barruko harrotasunari odola zerion, eta Mezenas, handikotea, amarrugabea eta Horazio-ren arima ulertzeko ezgauza, txunditu egiten zuen hainbeste ardo-zahagirekin, itsasuge freskoekin eta frankolin asiarrekin. Eta gainera, ene lagunok, uste al duzue Horazio-k munduko urre guztiak edukita ere, zoriona eskuratuko zuenik? Lukulo-k sabela

gaixo zeukan; Kresko piska bat hipokondriakoa zen, eta Mezenas berak behin baino gehiagotan olerkaria iraindu zuen, behazun-atakeek bultzata. Egia da, handik gutxira, bihotz-bihotzez barkamena eskatzen ziola. Urrea ez da zoriona. Eta berariaz, uste al duzue Gizon horia, nire auzoko aparta alegia, zoriontsua dela?

—Nik behin baino ez dut ikusi, bera bakarririk alderrai Tiber-reko ertzetatik —esan zuen zenturioiak—. Izan ere, iruditu zitzaidan, ezen, haren aurpegi horiska ez zela gizon zoriontsu batena. Haren zurbiltasuna eta haren jantziko urre-distira deigarri gertatu zitzaizkidan.

—Ez da zoriontsua, egia, nire irudiz —jarraitu zuen Polion-ek— eta, hala ere, hain aberatsa da!

Akrino-k erantsi zuen:

—“Urrezko Gizona” ere deitzen zaio.

—Bai. Gizon xelebrea da eta Danae-ren semea izatea merezi luke. Iragarri dizuedanez, gurekin bazkalduko du. Landetxea hurbileko muinoan dauka. Une batetik bestera, hurbiletik ezagutuko duzue.

—Zorioneko judua —erantsi zuen garratzasunez Akрино-k.

—Judua; baina duintasunez erosi du erro-matar hiritartasuna.

—Aspalditik bizi al da Erroma-n?

—Erroman denbora gutxi darama; baina hogei-bat urte daramatza probintzian. Pontzio Pilatos Judea-ko pretore handia izandakoaren gomen-dio onak ekarri zituen; eta ondorioz, Zesar-ren ba-besa merezi izan zuen. Adimen handiko gizona izanik, ondasun handia irabazi zuen hasieratik ber-tatik. Hainbat enpresa batera abiarazi zituen eta irabazirik gehien eman ziona errepide berrietako obra batzuk eta posta-zerbitzuaren zati bat izan ziren. Jokoa, emakumeak eta ardoa Lurbiran daza-guzkien erakargarri bakarrak dira.

—Agur, bada, “Urrezko Gizona”! —hots egin zuen Luzio Varo-k, esklabuak zerbitzatutako beste kopa bat kebuko edanez.

—Gero —jarraitu zuen Polion-ek—, izen-goitia bere krisofilia paregabe eta bitxiagatik dator-kio. Maite du urrea, urre zurbila, urre gorria, zeta-ren urrea, harribitxiaren urrea, emakumeen adatsen urrea, eguzkiaren urrea eta txanponen urrea. Eta ez dakit esamesak diren ala ez, baina bera ezaugutzen dutenen artean gauza jakina da urrea beragana doa-la, iman ezin indartsuago eta bitxiago batek eraka-rrita bezala. Dadoek badirudi haren esana egiten dutela, hezurtso traidoreak esklabu bihurtzen dira haren eskuetan. Urrea haren bila doa: “Gizon

horia” da. Eta adats horiak ere harengana doaz: “Urrezko gizona” da...

Bien bitartean, gaueko itzalak zerua samurtasun handiz inbadituta zeukan. Ondoko mahastietatik kilkerren iskanbila heltzen zen, eta platanotaetik, ilunabarrean arranditsu, txitxar baten diosal etengabea.

—Baina, egia aitortzera —jarraitu zuen Polion-ek—, “Urrezko gizona” apeta gogorra jasaten ari da gaur egun bere imanaren erakarpenari aurre egin dion urrezko adats batengatik...

—Norena da adats hori? —hasi zen esaten Akrino bere adats lurrintsua astinduz.

—Abenturarik bereziena kontatuko dizuet. Orain dela egun gutxi, Erromako kale batean, nire lagun bitxi honek herriko neskato bat topatu zuen, ninfa bezain zuria eta galburua bezain horaila. Dei egin zion eta hark ihes egin zuen, Atalanta-k baino arinago. Apiar Bideko eta Hiru Tabernetako fororaino jarraitu zion berak. Kalezulo bihurri batetik zehar jarraitu zuenez, ezin izan zuen harrapatu; baina haren atzetik zihoan esklabuari agindu zion hamadriadea nongo kobazuloan bizi zen miatzeko. Gertaeraren berri eman zidan eta nik bihotz eman diot bere apetari eusten jarrai dezan eta urrezko adatsa “Urrezko gizonaren” eskuetan amai dadin. Izan ere, Batta zaharra baino ezer hoberik ez dago kasurako.

—Lagun paregabea zara, Polion —esan zuen Varo-k, zutituz—, baina gaua inguratzen zai-gu eta jateko gogoak premiatzen gaitu.

Solastazeko egongelara jo zuten denek. Esklabuek larruak, frutontziak eta kopak jaso zituzten. Konstelazioak zegoeneko iratzarrita zeuden. Triclinium-era joateko unea iristen zen bitartean, argitsu eta epel deitzen zien solastegiko gelan sartzeko, lagun-taldeak peristiloa zeharkatu zuenean, ondoko bide-zidorretan ahotsak entzun ziren, mahasti ostean, eta gaueko barrunbe beltzean zuzien dirdira atzeman zuten.

Polion-en morrontzakoek linternak eta kandela handiak atera zituzten. Bat-batean, baldosaturiko bide-zidorrean zehar, aurretik eta atzetik jopuak zekartzala, Sardanapalo-ren duineko litera batean, urrea, zilarra eta zeta nagusi zirela, baina batez ere urrea, Polion-en auzoko aparta sartu zen, “Gizon horia”.

Polion-ek lagunak aurkeztu zizkion, eta elkarrekin solastatzeko egongelan sartu ziren denak. Ez ziren bertan eseri, zeren zenturioiak ahots larriz hots egin baitzuen:

—Jainko guztiahaldunak! Sukaldeko usain gozoak nigana heldu dira, eta zin egiten dizuet mauka-mauka jango dudala, Polifemo baten moduan.

Akrinok esan zuen:

—Goseak nago.

Une baten ondoren, denak zeuden ohantzeetan etzanda eta ezpainetako eta mingaineko musikaltasun gozoz afariko lehen platera dastatzen ziharduten.

Handik hurbil, tutueriako ura erortzen entzun zitekeen, musikaltasunez.

Ohantzearen gainean, intsektu erraldoia zirudien —gorputza, urrezko hautsaz hautseztaturik—: oinetakoetatik adatserraino metal misteriot-suaren dirdira ikusten zen: oihalen harien artetik dirdiratzten zuen: tuniak Apolo-ren apaiz bat lilitatuko zukeen; eta eskuetan batez ere, esku hezurtuetan —eraztunekin zamatuta errege barbaroren batenak bailiran—, jauzi egiten zuten, argiaren bainuan, harribitxien tximistargi txikiek. “Urrezko gizonak” hitzik esan gabe jaten zuen.

Haren itxura ikusita, berrogeita hamabost urte luze izango zituen; ilaje ugariari apenas atzematen zitzaion zilarrezko hariz osaturiko ile-xerlo bat edo beste, eta ardilarru trinkoa bezalakoa zen haren bizar gorri handia burdin harizko landaredia bezala atxekitzen zitzaion barail irtenari. Idolo-begi hotz haietan, metalezko begi haietan, Asiako zenbait arrazaren epikantoa nabarmentzen zen; sudu-

rra, branka bezain ausarta, aho makurraren gainetik okertzen zen, hezur malarretako bi agata irten eta kolorgetuen artean. Bekokitik —tailatuta bezala—, lokien alderantz bekain egipanikoek egiten zuten ihes. “Urrezko gizonak” jan egiten zuen, isilik.

Zurbila zen, zurbiltasun mineralekoa, ia-ia eskuetako eta bekokiko azala segidako erara erabilia izan bailitzan, jaspe harri baten moduan. Ardoaren garrak bakarrik jartzen zuen kongestioa begitar-te bitxi hartan.

Isiltasuna Axio-ren ahotsak puskatu zuen, esklabu batek zekarren azpilkada itsasugereren lurri-na arnastu berri baitzuen:

—Hocrum!, hocrum! Salbak altxorra balio du, nire Polion maitea. Eumolpo, sukalde inperialean, zure sukaldariaren bekaizti jarriko litzateke, janari gozo hau ikusita.

Itsasugeak, oso-osorik egosita, azpil handiaren gainean biribilkatzen ziren, arrain lehortuaren saltsa beltzean igeri egiten (Ponpeian bereziki egi-na).

—Ustekabe eder hau gordeta neukan zuret-zat —esan zuen Polion-ek—. Ziurraski, gehien gustatzen zaizun saltsak ez dizu lagun egin Sirian zehar eta gainerako lekuetan zehar egin dituzun ibilaldietan.

—Zerbitzuaren nekeak jasan ditut, estoi-koen antzera. Eta zin egiten dizut lurralde urrun haietan zure abegi onaz behin baino gehiagotan oroitzen nintzela.

Akrinok, hots egin zuen:

—Nik den-dena jasango nuke, beste paisaje eta beste edertasun batzuk ikusteagatik. Zuek bai zorionekoak, Zazpi Muinoak estaltzen dituen betiereko zeruaz bestelako zerurik ikusi duzue-eta!

“Gizon horiak” azkenik ezpainak ireki zitu-
tuen:

—A, bidaiatzea, ibiltzea; nekagarria, gogai-
karria!

Haren hitza berunezkoa zen. Haren adimerari zerion harkaitz-sentsazioa begi-bistakoa zen. Ideia eskasa tantaka iragazten zen.

Luzio Varo olerkariak esan zuen:

—Niri dagokidan bezainbatean, nire orpoetan Merkurio jainkoaren hegalak nahi nituzke. Egunsenti bakoitzak herri desberdin batean atzemango lidake. Gaur, Atenas argitsuari agur esango nioke; bihar, Indiarantz hasiko nintzateke hegan; ostean, gauza miresgarrien erresumetarantz.

Polion-ek jarraitu egin zuen:

—Azalpen baten berri izan dut, nire irudiz oso zorrotza eta filosofia ederrekoa, gizonik gehienek klimaz, lurrez eta zeruz aldatzeko sentitu ohi duten antsiari buruz. Dakizuenez, zeruko argizagiak gure patuekin zuzen jarrita daude harremantetan. Gure arimek musika pitagorikoaren eragina jasaten dute; gure izaeran badago altuera argitsutik datorkigun zati bat. Beno bada, hala nola argizagi zerutarrak etengabe mugitzen dira —eta eten egingo balira, unibertsoaren makinan ordena amaituko litzateke—, gure izaerak puntu bakar batean geldi ez egotera bulkatzen gaitu. Eta nire ustez ezer ez dago gehiago indartzen gaituenik, izpirituz zein gorputzez, bidaien joan-etorria baino. Translazioa behar-beharrezkoa zaigu. Niri dagokidanez, zera esango dizuet: Grezia eta Egipto zeharkatu nituenekoan, nire bizitzako egunik onenak izan zirela. Grezia, batez ere, adiskideok...

—Grekoa eta alferra! —esan zuen barrez zenturioiak.

—A, Axio, zu bai gaizto eta mesfidatia! Modako errefrau hori nirekin erabili gura izanda ere, esango dizut, ezen, nik Grezia sarritan bisitatu nahi izango nukeela, bai, baina ez plazer eztsuez gozatu edota sibaritaren antzera bizitzeagatik. Ongi dakizu ni leku guztietan saiatzen naizela, orduak nire aldeko izan daitezen eta nire aurretik irribarretsu eta atsegin igaro daitezen. Ez naiz, halere, erromatarra den guztia barregarri utzi eta grekoaren

sasieitea hartzen duten horietakoak. Ez: nik lurralde hori dut gustuko bere edertasun paregabeagatik, bere eguzkiagatik, bere hiriengatik, bere kulturagatik, bere arteengatik, batez ere. Ez zait damu dauzkan artelanak eskuratzen urre-kopuru ederrak gastatu izana. Gainera, Grezian olerkiak airean flotatzen du, begiak edertzen ditu ikuskizun harmoniatsuen begitazioaz. Hizkuntzak gurea gainditzen du bai edertasunez bai musikaltasunez. A, greko garbia, zeinen bikaina, zelako ideia-tresna subiranoa! Ez, atenastar-itxurak egiten dituzten irakasle eta beste jende batzuen ahotik Erroman mintzatzen entzuten duzuen greko hau; ez: jainkoei mintzatzen entzun nahi badiezue, zoazte ni bezala Nacianzo-ra.

Berriz ere isilik geratu ziren. Noizean behin, esklabuek kopak betetzen zituzten.

—Falerno? —galdetu zuen Axio-k.

—Ez —esan zuen etxeko jaunak—. Aulon, kalitaterik onenekoa. Leku horretan mahastiak dituen adiskide baten oparia da.

Dastatze batzuen ostean, Akrinok arrosazko sugar bana zeukan masailetan. Alai barre egiten zuen, neskato baten antzera; Polion-en ondokoari trufati begiratzen zion; adatsa astintzen zuen.

Bat-batean:

—A, Polion! eta koroak, gero?

Honek seinale bat egin zion esklabuetariko bati. Bi ume sartu ziren jarraian, sortaz eta lorez beteriko saski zabal bat zekartela.

—Zer nahiago duzue, ene lagunok? — galdetu zien anfitrioiak.

Axio-k, esan egin zuen:

—Mitrea: mitreak bekokirik suhartsuenak freskatzen ditu.

“Urrezko gizonak” hitz hauek ebaki zituen:

—Mitrea, bai, mitrea—. Eta arrain-zati handi bat irentsi zuen.

Luzio Varok bost aldiz hustu zuen bere edalontziko edukia, bost baitziren bere maitalearen izenak zituen letrak.

—Zuri tokatzen zaizu orain, lagun. Ninfa iheslariaren urrezko ilajeagatik.

—Gizona! —oihu egin zuen alai zenturrioiak.

—Badakizue —esan zuen “Urrezko gizonak”, Polion-i zuzenduta—, ez dakidala izenaren berri. Apeta da; edo hobeto esan, sorginkeria.

Haren omenez nire brindisa ez da faltako —eta bere edalontziko edukia zurrut batez hustu zuen.

—Eta zuk, Akrino, nor maite duzu? Esaigu-zu zure eder horren izena eta klonpli ezazu edatea- rekin behar duzun bezala.

Mutil gazteak gaiztakeriaz barre egin zuen.

—“A” —esan zuen. Eta kopa bat edan zuen.

—“K” —Beste bat hustu zuen. Denek ent- zuten zioten jakinminez.

—“R” —Beste bat.

—“I” —Beste bat.

—“N” —Beste bat.

—“O” —. Beste bat. Eta zilarrezko ahotsaz aldarriktu zuen:

—Ni Akrino naiz, Akrino-z maiteminduta dagoena. Nire maitalea Akrino da. Akrino ederta- suna da: Akrino Venus-en semea da. Beste kopa bat edango dut Akrinoren omenez!

Olerkariak mitrea eta arrosak eskatu zituen; Polion-ek, mitrea.

Eta Akrino-k:

—Arrosak, arrosak, arrosak, arrosak...

Bi haurrek, irribarrez, koroak osatu eta nagusien buruetan jartzen zituzten.

“Urrezko gizonak” txanpon batzuk atera eta esklabu txikiei jaurki zizkien. Axio-k haietariko bati bere kopatik edanarazi zion, eta mutikoaren ausardia laudatu zuen. Luzio Varo-k musu bat eman zion masail banatan.

Akrino-k ederrenari deitu zion, bera bezain horaila eta maitasun bat bezain fina zenari. Musu eman nahi ziolako itxura egin zuen: haurrak oihu bat jaurki zuen.

Soin batean gorri-koloreko orban bat ikusten zitzaion: egiatan gorri-koloreko arrosa zirudien, bere lore-hosto guztiekin, horzkada ankerra zenak.

Polion-ek onberati begiratu zion bere lagun artegari:

—Nire Akrino zintzoa, aulonak traizionatzen zaitu!

Urrezko hegaztia bailitzan zetorren faisaiak bere azpil handian, apio-habia batean etzanda. Luzio Varok, aurrera ahala gero eta aldarte alaiagoz, jakiaren agerpenari agur egin zion ongi zegokion aipamen batekin.

—Nire ohorezko platera da —esan zuen Polion-ek—. Zatiak zozketatzeari ekingo al diogu? Ziur nago, ene auzoko bipil hori, Venus-en zorteak zurea izango dela.

“Urrezko gizonak” irri egin zuen, lauso begiratuz —airean, irudi iheskor baten atzetik balebil bezala.

Esklabu batek dadoak ekarri zituen. Zenturioiak bota zuen; olerkariak bota zuen; Arzino-k bota zuen; Polion-ek, jarraian; gero, “Urrezko gizonak”. Berak irabazi zuen.

Beraz, hegazti gozoaren parterik onena hartu zuen beretzat. Ostean, Axio-k Venus-en aldeko brindisak proposatu zituen —ardorik zoragarrienak zerbitzatzen zituzten artean.

—Zuk, zeure Lina miresgarriaren omenez, Axio, has zaitetz —esan zuen anfitrioiak...—. “L”.

Zenturioiak kopa bat edan zuen.

—“I”.

—“N”.

Beste bat.

—“A”.

Beste bat. Beste bat. Denek txalo egin zioten.

—Orain zuk, olerkari, Zelia horail ederraren omenez, zure odarik ederrenak idaztera bultzatu zintuen-eta.

Bere koroatik arrosa bat erauzi zuen; bere edalontzian hostoak kendu eta edan egin zuen. Haren begitarteak purpurakara dirdiratzten zuen. Barre zegien. Horditurik zegoen.

—Eta zuk, Polion —esan zuen Axio-k—, norengatik edan behar duzu? Hostilia xarmentaz ahaztu ahal zara, edo honez gero laga al duzu? Zortzi alditan edan beharko duzu!

Txalo artean, Hostilia izenak zituen letra adina aldiz edan zuen Polion-ek. Eta une hartan, hain zuzen, tutueriako ura erortzen sentitzen zen gela ondoan, musikaltasunez, diamantezko ur ozenarena ez zen beste barre bat entzun ahal izan zen; iturriko musika gaingiduz bere kristal-tantak eskapatzen uzten zituen barre konprimatua. Orduan, esparru hartarako sarrera ezkutatzen zuen purpura-koloreko gortina handiak mugitu egin ziren.

—Eh! —oihu egin zuen Axio-k—, zein ninfa ezkutatuta daukazu iturriko haitzuloan? Akri-no-k Eko iratzarri al du? Zer sorpresa gorde diguzu, aparteko lagun horrek, anfitrioi paregabe horrek?

Gaurkoa aurreko egunetakoa baino atseginagoa izango dela susmatzen dut, ardoa urez bete zenigunean (bi filosofo dotoreren hausnarketak entzunarazten zenizkigun bitartean —berariaz, estoikoak arrausi eragiten zidan eta peripatetikoak betazalak itxiarazten zizkidan—.) Esazu egia. Zer ezkututzen duzu gortina horien atzean?

Denek bat egin zuten zenturioiarekin, zalapartatsu.

—Egia —esan zuen Kinto Flavio-k—, sorpresa polita gorde dut zuentzat. Baina Luzio Varo-k bere neurtitzetako batzuk entzunarazten dizkigun arte, ez da horretarako momentua iritsiko.

Egoitzako sukaldariaren ospea egiaztatzen zuten hainbat janari gozoren ostean, Axio-k laudoriozko hitz handiak izan zituen: esparragoak oliotan bikainak ziren; eta usain gozoko meloiak —Ostiatik ekarritakoak eta mami nektario ezin finagoa zutenak— ere, berdin. Lehendabizikoei dagokienez, Zesar-ri buruzko pasadizio bat kontatu zuen (izan ere, sabel ezin hobeago baten jabe baitzen hura). Antza Milan-era heldu eta bere lagun Valerio Leon topatu zuen, berean ostatu eman ziona. Bazkalorduan, harekin zeuden lagun batzuekin mahaira joan zen, eta aurkeztu zizkieten plateren artetik bazegoen bat: esparragoak saltsa oliotsutan; sukaldariak, ordea, olioaren ordezkari ukendua jarri zuen. Zesar akatsaz ohartu zen baina ez zuen ezer esan ostatu ematen zionaren sentiberatsuna ez zauritzea-

gatik. Hiru mahaikideek, berriz, bai, protesta egin zuten; orduan, Zesar-rek agirika egin zien kontzeptu hauek argudiatuz: “Nahikoa da gustuko ez dena ez jatea; eta baldarkeria horretaz kexatzen dena da benetako baldarra.” Meloiei buruz, Axio-k ez zuen ezer kontatu; hori bai, zati ederra jan zuen.

Ardoak lagunarteko jaiak berotu zuen. Polion-ek esklabu bat bidali zuen, Dionisio-ren eta Venus-en irudiak jarrita zeuden nitxoetan koroa batzuk jartzera.

—Beno bada, Varo, zure neurtitzak? —ekin zion Polion-ek.

—Bai —baieztatu zuen Akrino-k—, neurtitzak, Varo, neurtitzak!

—Barka nazazue, lagunok —erantzun zuen olerkariak—. Faisaiari agur esan diot Varron-en aipu batez. Baina ez dut gogoko neronen neurtitzak kantatzea ezta deklamatzeko ere. Ez dut hori jendaurrean egiten; eta bakarrik nagoenean ere, zinez saiatzen naiz hori ahalik eta gutxienetan gerta dadin. Odeioa ez da niretzako egina. Horazio zuhurrerengan txalotzen ditudan gauzetariko bat erakustaldi horiek saihestu izatea da, horrek etsaitasun zenbait ekarri bazizkion ere; noski, gizon zuhurren txaloa irabazi zuen. Zure aitona, nire Kinto Flavio maitea, ez zuen gutxi lan egin, ba, lortzeko, bere laguna olerkiak irakurtzera joan zedin. Olerkariak justizia osoz egiten baitzion uko. Zer daki jendetza-

nahaste horrek, gehienetan buru gutxiko jendez osatuta? Zelan aurkeztuko du batek bere burua, historiaia bailitzan —“hitrio, mima!”—, antzerki batean pilatutakoak Apolo-ren dohainez dibertitzera:

Spissis indigna theatris
scripta pudet recitare,

dio lirikoak arrazoi osoz. Ez, ez naiz ni izango sapiroeta lurrintsuak (herri xehe ezikasía lausengatzeko, euren musika berritsua egiten dutenak) imitatuko dituená. Ezta bakardadean ere. Nire lagunek ulertzen banaute, nire talde intelektual berekoak badira, primeran; baina hori gauza oso bakana da. Oro har, lagun adimentsuen ondoan, banketeetan ongi epilatutako komedianteak aurkitu ohi dira, ezagutzáileen itxura hartzen duten mundukoi kamutsak; irribarrea ezpainetan entzuten dute, buruaz zuen neurtitzen silabak akonpasatzen dituzte, eta ulertu ez dutenarengatik zorionak ematen dizkizuite trakestasun handiz; beste batzuek barrenean iseka egiten dizuite eta penaz begiratzen dizuite zuen pentsamendu nefelibatikoengatik; beste batzuk, okerrenak, kazkarrenak, aretagolo arruntak, zuetaz bekaizti dira, alde egiten duzuenean horzka egiten dizuite eta zuen izena zakarkeria handiz idazten dute emagaldu baten gelako hormetan...

—Gu ordea! —eten zion Axio-k.

—Zuek, badakit, nire adiskidetasun eta es-
timu osoa daukazue. Zarena izango ez bazina, Po-
lion —zure aitonaaren iloba duina, alegia— ni ez
nintzateke zure laguna izango. Zuk bihotz adina
adimen daukazu. Eta hala nola Vitruvio arkitektoa-
ren aholkuari jarraituz zure liburutegia eguzkiak
jotzeko moduan paratu duzun, zure arima ere jarrita
dago halako moldez non artearen jainkozko errai-
nuak aurrez aurrez jasotzen dituen. Zuei dagoki-
zuen bezainbatean, Kinto Flavio Polion-en ostalari
duinak zarete, eta zuen omenez bertso batzuk iraku-
rriko ditut; nireak ez ordea. Emaidazu zure eskua,
Horazio, ene laguna. Zure odolaren loriak abesten
dituzten ahapaldiak irakurri nahi ditut. Bien bitar-
tean, edan dezagun.

Liburutegitik pergaminoak ekarri zituzten.

—Orain, sorpresa: lira eta edertasuna! —
esan zuen Kinto Flavio-k.

—Hostilia!

Gortina purpurakaratik emakume eder bat
agertu zen, barrea bezain fresko eta alai. Hostilia
lira-jotzailea zen, Polion-en maitalea.

Lorez koroaturik zetorren. Apur bat argala
zen, baina lira baten ingeradak bezala biribiltasune-
tan aldakak zituen, eta lerro liluragarria izter diani-
kotik berna finean zehar jaisten zen —urre-
koloreko sandaliaren zirrindolak atxikita iragartzen

baitzizaizkion—. Begitarte obalean begietako su beltzak txinpartaka ari ziren, adats izugarri ederraren kasko hertsiazen azpian, adats urdin itzela (berak garraiatzen zuena —kaneforak bere saskia bezala—). Brontzeko lanpadario handietatik zerien argien ñirñirra zela-eta, irribarre sentsualaren grazia odoltsuan perlazko dardar leunak distiratzten zuen. Horlegi-koloreko eta zeta-antzeko estrofoiak soinaren goi-aldea inguratzen zuen, lihozko tunika estutuz. Beso biluzietan lira bat bermaturik zeukan. Erritmo iraunkorrez jositako eta arrosa bezala landatutako udaberriko gorputz hartan, azaleratu egingen zen, ukendutegiaren lurrin bortitza baino, Juventziaren begikoari jaulkitako hasperenik lurrintsuen eta garbiena.

—Hostilia! Ongi etorria, Hostilia! —hots egin zuten denek.

Esklabutxoek kuxin zabala ekarri zuten. Handik berehala, liraren soinua entzuten zen; eta Luzio Varo-ren ahotsak bat egin zuen soinu dardarkariarekin; honela hasi zuen bere deklamazioa:

“Motum ex Metello consule civicum...”

Bukaerako bertsoa azken zatian durundarazi zuen arte:

“Quare modos levioere plectro.”

Kopak altxatu zituzten:

—Bozkariora, bai, bozkariora!

Polion-ek begirada josi zuen maitalearengan. Besteak, irribarretsu, gartsuki begiratzen ziola:

—Ene maitea!

Eta Varo-k:

—Orain, ene harribitxi horrek, lagun iezaiozu beste kanta bati. Zuk, Akrino, horren ongi dakizuna errezitatuko duzu, Horazio-ren elkarrizketa hartatik dagokizuna, alegia. Zu, Polion, Horazio maitemindua izango zara.

Mutilak baiezkoa eman zion, pozik. Beste erroilu bat ekarri zuten; Varo-rentzat, Akrino-k buruz baitzekien zegokion zatia, Lidia-ren zatia alegia. Eta horrela, samurtasun handiz, txandaka, liraren soinu ferekagarria lagun, olerkariak kantuari ekin zion:

“Donec gratus eram tibi
nec quisquam potior brachia
candidae
cervici juvenis dabat;
persarum vigui rege beatior”.

Hostilia-k lirarekin maitasun-soinu ezin gozoagoa sortzen zuen, intziri baten hasierak bat egiten baitzuen lehendik loratutakoarekin, eta liri-

koaren ahaltasunak kateatzen dituen edertasunen omenezko fuga grinatsu baina neurritsuarekin.

Akrino-k, emakumezkoaren ahuleziaz beteriko doinuaz, erantzun egin zion:

“Donec non alia magis
arsisti, neque erat Lydia post
Chloen
multi Lydia nominis
romana vigui clarior Ilia.”

Lirak, orduan, maitasun zahar baten berri eman zuen, sugarrak oraindik ere lotan zirauen baten; eta jelsien dirdira, lo zetzan sugarraren gaineko errubi bipila bailitzan.

Luzio Varo-k aurrera jarraitu zuen:

“Me nunc Theressa Chloe regit,
dulces docta modos, et citharæ scien;
pro qua non metuam mori,
si parcet animæ fata superstiti.”

Lirak Chloe-ren zitararen modura durunditu zuen, eromen haserre eta lizun baten bortxaz. Tentazioa zen, neska lehiakide indartsu eta ederraren deia.

Akrino, orduan, bere aldetik, liluraz eta errezelo zoliz aurkako jelosiak iratzartzera prestatzen da:

Me torret face mutua
thurini Calais filius Ornythi;
pro quo bis patiar mori,
si parcent puero fata supersti-
ti.

Eta lirak osterera ere esan zuen tarentoar gaztea zeinen tentagarria zen, eta Lidia-k haren liluraren eragina nola sentitzen zuen; eta harengatik existentzia nola sakrifikatuko zuen. (Lirak, ordea, esan ere esan zuen, ahots baxuko bere lokarriez, maitale zaharraren bihotzak nola taupatzen zuen, maitearekin adiskidetzea irrikatuz.)

Varo-k:

Quid? si prisca redit Venus,
diductosque jugo cogit ahe-
neo?
Si flava excutitur Chloe,
rejectoeque patet janua Ly-
diae?...

Orduan, lirak, grinaz beteriko trumoi antzera, bere burdin hariak durundiarazten ditu, eta bere burdin harietatik hegaldatzen ariko bailiran, zirimola harmoniatsuaz, musuak eta urrezko erleak, Akri-

no/Lidia-ren ahotsak latindarren mintzaira beroan kantatzen duen artean:

Quamquam sidere pulchrior
ille est; tu levior cortice, et
improbo
iracundior Hadria
tecum vivere amen, tecum
abeam libens.

Bukatu ostean, Kinto Flavio-k eta zenturioiak txaloak jo zizkieten.

—Katilukada bat nire Falernorik onenetik, Venus-ek zuen alde egin dezan! —hots egin zuen lehenak.

Edatean, “Urrezko gizona” lotan geratu zela ohartu ziren.

Bi ordu geroago, Polion-en ostalariek egoitzako bi departamentu desberdinetan hartzen zuten atsedean, eta berak eta “Urrezko gizonak” karrozan hirirako bidea hartu zuten arin bai arin. Puntu jakin batera helduta, jaitsi eta zutik jarraitu zuten, Hiru Tabernak izeneko tokia zegoen auzo barrura sartzeko alde hartatik agertzen zen atea zeharkatuz. Itxura goibeleko etxe baten aurrean gelditu ziren; bertoko atean linterna bat pizturik zegoen. Polion-ek atea jo eta atea erdi ireki zen, burua txano ilun batez estaltzen zuen atsoa aurrean agertu zitzaizolarik.

—Batta?

—A, jauna!, albiste onak ditut!

—“Urrezko gizona” aurreratu egin zen adi-
adi entzuteko.

Atsoak aurrera jarraitu zuen:

—Gau guztietan pasatzen da hemendik,
bakarrik, edo nire ustez haren neba izan daitekeen
gizon batek lagunduta.

—Jarraitu al diozu? Kontuan izan bateko
urreak ez, baizik urrezko libera ederrak direla.

—Jaun itzaltsu hori, jarraitu egin diot. Kale-
zulo honen barrenean dagoen etxe batean sartzen
da. Nor bizi den han, oraindik ere ez dakit. Jende
asko biltzen da leku horretara, batez ere atzerrita-
rrak, grekoak eta juduak. Ostatua delakoan nago.
Dena egingo da, den-dena: ez zaitez kezkatu. Dena
egingo da, edo Batta-k ez du bere lanbidea ezagut-
zen.

“Urrezko gizonaren” metalezko begiek txi-
mista antzeko dirdira jaurki zuten. Polion hitz egi-
teko prestu zegoela, atsoak isilik egiteko keinua
egin zion, eta ondoko kalezularantz zihoan ema-
kumea seinالاتu zion. Gaueko zeruaren argitan oso

gaztea zela —ia-ia neskatoa oraindik— atzeman zitekeen.

—Bera da —esan zuen Batta-k. “Urrezko gizona” izutzen zela irudi zuen.

—Haren atzetik joango al gara? —galde egin zion Polion-i besotik helduz.

Honek buruz baiezeko mugimendua egin zuen. Orduan, neska gazteak hartuta zeukan bideska aldera zuzendu ziren. “Urrezko gizona” hari atzematen saiatzen zen; neska haren atzetik zebiltzatela oharturik, urratsa azkartu zuen. “Urrezko gizonak” dei egin zion:

—Entzun ezazu, entzun ezazu hitz bat!

Neskak Atalanta-ren duineko lasterketa hasi zuen. Kalezuloan ate guztiak itxita zeuden. Dena zegoen bakardade osoan.

Jazarpena azkarra izan zen. Kalezuloaren hondora iritsi ziren. Han etxe bat zegoen, harriz eta oholez egina, eraitsitako egoitza zahar baten zimentuen artean.

Neskak etxeko atea oldarrez bultzatu eta, bere jazarlea oso hurbil zeukan unean, barrura sartu zen.

Behin barruan, oihu egin zuen:

—Laguntza! Lagun iezadazue, gure Jesus Jaunaren izenean!

Polion bere lagunarengana nekaturik heldu eta, hura barrez ikusi zuenean, esan egin zion:

—Ene fauno zintzoa!

Bai bata bai bestea ate ondoan geratu ziren, nekez arnasa hartzen.

Orduan, “Luzila!” oihukatu zuten gizon eta emakume-talde baten artetik, aurreratu egin zen — eskuan buztinezko lanpara bat zekarrela—, Polionengana eta bere lagunarengana, adats luzeko agure bat (giltzurriekin artilezko lokarriekin lotutako tunika grisa janzten zuen bat).

—Noren bila zabilzate? —galde egin zion.

Argiak bete-bete harrapatu zuen “Urrezko gizonaren” begitartea. Agureak adi-adi begiratu zion; eta une hartan, musua zurbildu zitzaion, eta egin zuen keinuak harridurazko mozorroa zizelatu zuen. Buztinezko lanpara eskuetatik erori zitzaion. “Urrezko gizonak” piska bat atzera egin eta begitartea togaz estali zuen. Eta Malko-k ahots izutuaz esan zuen:

—Kariot-eko Judas!

III

Luzio Varo etxean dago; ohetik goiz jaiki da; eguzkia ikusi nahi izan du. Haize fresko eta leunak, gonbidapen gisa, goizeko fereka dakarkio. Ia gau osoa igaro du lo egin gabe. Batzuetan loezinak bisita egiten dio. Bere burua lanean ari da; ametsaren argitzaletan, badirudi bere kasa lanean ari dela. Horra hor orain, zurbil samar, begiak betzulo lauso eta mehez inguraturik, egunsentiko gurdiaren dirdira sortu berriaren aurrean. Handik hona dabil gelan zehar; bere argizarizko tabletak konpontzen ditu. Handik hona dabil eta gogoetan ari da, gogoetan ari da. Zeri buruz?

Eguzkiko lehen sugarra sortzen da, zeruekialdea argi leun loratu berriez harrigarriro apainduz. Urre ugariak eta handiagotuz doanak Erroma urreztatzen du. Eraikuntza ilunak argitan altxatzen dira. Egunsentiak bere alaitasun iratzargarriaren ezti etereo eta musikalak goizeko airean urtzen ditu. Luzio Varo giroa arnastera agertzen da, bere toga zuriaz estalita, eta, ukondoa marmolean bermaturik, bizarra eskuan, egunsentiaren etorrerari begira iraun, eta pentsatzen du...

“... Erroma, Erroma ikaragarria, Inperia handia, munduaren andrea. Zure begiradapean loria altxatzen da, indarrez osorik jantzita, eskuinean palma ozena eta sandalia magikoa trumoiaren lepoaren gainean. Zuk, zainetan erritmoa jartzen digun su-ardo hau, latindar odolaren bortxa hau

transmutatu egin zenuen, antzin-antzinako egunean, Lupa latzak eraman zion errapetik Romulo-ren ezpain egarrietara.

Zazpi erregek lehenik begiztatu zituzten zazpi muinoak. Eta jatorrizko enborretik seme-alabak sortu ziren oparo. Mendi Sabinoen ereintzak, Etruria ederrarenak eta Lazioko usoarenak Errepublika koroatu zuten. Goi-ospakizuneren desfile handia, konkista neketsuak, patrizioa eta plebea, kontsul-gurdiak, liktoreak, gudaosteak... Nongo haitzuloan durunditzen du oraindik harmonia misterioz eta jainkozkotasunez, hitz olinpikoak (bere Naiade Numa-ri ur lirikoetan entzun zionak?)

... Eta hona hemen arrano-taldea!, nondik datoz garaile? Zeruko lau puntuetatik; Kartago trauskiletik, uharte zorionsuetatik, Atenas zuri eta sakratutik.

Eta zureak, o Zesar!, Galiziako baso ohargarrietatik —eta eguzkiarenugarpean euren zahargiei putz egiten dieten haize guztietatik eramana—. Inperator ederrari aparteko diademaren dir-dira dario, eta bere eskua, altxatu eta, Jove-rena bailitzan, gobernatzen du, kapitoliar...”

Eta Luzio Varo, aspalditik kezka ematen dioten beste zeinbait inpresiotara igarotzen da jarraian.

Hona hemen lehena. Arratsalde batean Tiber-rera jo zuen, arrantzontzi batean, hainbat itsasgizon lagun zituela, eta adiskide erretoriko batekin, Arseliorekin; zeinak musukatzeko tirria baitzuen eta denbora hartan zegoeneko itzaltsu samarra baitzen, inperioaren eskuzabaltasunari esker laurehun mila sestertzio jaso zituelako, sukaldaritzako elkarrizketa baten ordainez. Honek Tiberio-ren bizimodu handinahi eta alaia abesten zuen; banketeen antolaera burutsua; eta baita zenbait apeta odoltsu eta haragikoi ere; idatziz jartzen zituen bankete haietan jaulkitzen zituen burutazio eta ateraldi aproposak, edota Seleuko gramatikalariarekin, Arselio-rekin edo Zenon grekoarekin jadanik agerian jarrita zeukan jakinduria.

—Ba al dakizue —esan zuen Arselio-k— zeintzuk izan diren azken banketean egin dituen hiru galderak, behar legez erantzutea inork izan ez dituenak? Hauek dira: Akiles-ek zein izen zuen Nikomedes-en gortean? Nor izan zen Hekuba-ren ama? Zer abesten zuten sirenek?

—Ni ere isilik geratuko nintzatekeen, nire jakituriak ez baitzukeen arrazoizko erantzunik aurkituko. Batez ere, azken galdera, nire irudiz, zailena da: ¿Zer abesten zuten sirenek? Pentsatzekoa denez, maitasun-kanta gozoak abestuko zituzten, Pan-ek bere siringaren lezketatik ateratzen dituenak baino gozoagoak. Haien gorputzak arroken gainetik altxatuko ziren; hondarpeak arrosekin loratuko ziren; haien adatsak haizeek askatu eta urre-antzeko

banderatxoak bailiran hedatuko zituzten; haien begietako argizagi gozoek zorion hilezkorren lorpena aginduko zuten eta, haien mingainek Venus-en loriaren berri emango zuten. Abesten zuten kanta —aireak sorgintzen zituena— bezalako imanik ez, soinu distiratsua bezalakoa izango baitzen, gozamen hutsez sentimenak menperatu eta pentsamendu kateatzen zuelarik; horrela, itsasontziak musika horren jatorrira eramaten zituzten ezinbestez, eta belarriak estaltzeko amarrua izango zutenak (Ulises-en lagunak, kasu) eskapatu ahal izango ziren heriotzatik, melodiatik ihesi.

Eta arraun-hots txikiarekin batera, itsasgizonetariko batek hitz egin zuen:

—O, jaun prestu horiek! Sirenek abesten duten ordua da; arratsalde guztietan joaten naiz nire lagunekin haiei entzutera. Borondate oneko gizonak bazarete, nik eramango zaituzte haien kantak entzun ditzazuen, kanta harrigarriak eta benetan liluragarriak baitira.

Arselio-k barre egin zuen. Baina Varo hurrengo arratsaldean itzuli zen arrantzale berberekin.

Ez nolanhiko harriduraz entzun zuten gizon haren esana —zarpaila zirudien arren, bere begietan bazegoen halako zintzotasun zerutar bat—. Eta, arrantzaleen gidaritzapean, ibaian gora jo zuen, ilunabarreko gasa more ukiezinen artean,

bihurgune batera iritsi arte, non, harkaitz altu batzuetatik hurbil, olibondo eta mahasti birjina batzuek osatzen zuten basotik ez oso urrun, txalupa gelditu baitzen...

Txalupa gelditu egin zen; eta gero, korronteak poliki-poliki eramane zuten, ahots mireagarrien kontzertua entzun-uste izan zuten punturaino.

Ibaiko uretan ortziko izar jaioberriak dardarka hasten ziren, eta ondoko olibaditik eta mahasti birjinetatik lauso gozo eta epel bat iristen zen, Zibeles-ek bere soinekoa erdi ireki eta bere sabel emankorraren lurrina eskapatzen utziko balu bezala.

Eta, ilunabarreko lanbroen artean, eskuetan adar horlegiak eta lore-otarreak zeramatzen zuziz jantzitako emakume-prozesio bat ikusi zuten. Hilobi bat itxi berria zen; haren ondoan, gizon-talde bat bazirudien otoizka ari zela; eta prozesio zuriak ahots leunez abesten zuten.

Zer abesten zuten sirenek?

Hura ez zen itsasoko eta landako jainkotasunei egindako sakrifiziorik, ezta mahats-bilketako kanta bozkarioz beterik, ezta Dionisio-ren omenez egindako laudoriorik; Adonis-en kanta ere ez zen, ezta Flora-ren jaien abesti alai eta sutzurik. Ahotsak delikatuki gardenak altxatzen ziren, eta izpiritu berri baten etorreraren eta garaipenaren berri ema-

ten zuten; bihotzak, hegaldunak eta lurrintsuak, igo egiten ziren, munduaren kizkietatik aske, urdiñ-irrikaz; mina sanfitikaturik zegoen, malakoak harribitxi sideralak bilakatuak ziren; safrifizioak bertuterik gorenena lortuta zeukan. Hauts apaletik zurtoin sakratua ernamuintzen zen, zeinaren lore garbi eta inperialak paradisiko arnasa adoretzat harturik baitzeukan. Eta den-dena dirdiratsu agertzen zen jainko berriaren begiradapean; Jainko handi eta bakarraren begiradapean.

Haren izpiritua aztoraturik astintzen zen bafada ezezagunen bidez. Zein gurtza estrainok hartzen zituen apaiztzat ahots ezitsuko emakume haiek? Jainkosa handia omentzen zuten ekialdeko zeremonien berri bazuen..., baina, abesti haien artean, Kristoren izena haren belarrietara heldu zen; jende haiek, beraz, asto-buruaren idoloaren sektarioak ziren.

Sirenaren kantak jarraitzen zuen, eta gaua sarturik zegoenez, hilobi itxi berriaren ondoan zuziek distiratu zuten.

“Aintza Jaunari, aintza Jesus erregeari, aintza Kristo santuari, Aitaren eskuin aldera igo delako! Zeren Berak ematen digu fedearen eta maitasunen maitasunaren grazia miresgarria. Maitasuna izpirituaren fruitua da; bakea, izpirituaren fruitua da, eta ontasuna, eta onberatasuna, eta otzantasuna, eta neurritasuna, izpirituaren fruitua dira. Eta mina Kristo-rena da; sufri bedi maite duena; Berak

emango du sarietan onena, ezin zimelduzko koroa eta gozamen amaigabea.

“Aintza garaileari, Jaunarengan hiltzen den eta bere indarrez eta bertutez betiereko erresumara igotzen dena. Arima sakratuak hautsaren alaba den haragi miserablea garaitzen du, eta bizitza iraunkorraren alderantz egiten du hegan. Jauna aberatsa da erruki-beharrez eta berpizkundea eskaintzen digu eta salbatu egiten gaitu. Izan gaitzen indartsuak ilunpeen aurka eta eskain ditzagun gure loreak, gure odola eta gure pentsamenduak, eta gure egitateak, Jesukristo Jaunaren omenez. Ontasuna bera baita eta gure errege izango da menderen mendetan...”

Eta gizonak eta prozesio misteriotsua landako itzalen artean desagertu ziren. Eta berak txalupan itzuli zen, pentsakor; eta marinelak argitasun-eta freskotasun-hizkera hartaz hitz egin zion, hala-ko moldez non ahaltasun sekreturen baten jabe zela pentsatu baitzuen; Erroman sortu berria zen anaitasun bati buruz, ideia berriei buruz, Greziatik heldu berria zen gizon bati buruz hitz egin zion —gizon horren hitz-jarioa hitz-jario guztiak gainditzen baitzuten eta zerabilen filosofia beste filosofo batzuen gainetik altxatzen zen, eta arranoa bailitzan usoen gainetik; gizon horrek Paulo zuen izena.

Abentura zela-eta, Luzio Varo oso kezkatu-rik heldu zen etxera. Egarrri zen eta Pan-en irudi batez babesturiko iturritxora joan zen ura hartzera.

Orduan, iruditu zitzaion, ezen, ura erori ahala, barre ozena ateratzen zuela eta jainko babeslearen brontzezko mozorroan iseka-espresioa zirriborratzen zela.

Varo-k bere arimaren hondora begiratzen du. Agian, lehen aldiz gertatzen zitzaion, udaberriko ardoa baino goizago horditzea... Izan duen gartzaroa lira eta arrosazko jaia izan da, eta jainkoak eurak ere ahantzian erori dira haren kantuen eta musuen xarmaren kariaz, usapalak nekagaitz sakrifikatu ditu eta eskua beti izan zuen anforatik hurbil. Kantatzen zituen bertsoak bere psikean bertan loratzen ziren, euren zerizanak mamitsuenean lurrinduta, eta zeukan filosofia epikuriarren baratze-lore ezin atseginagoa zen. Goizeko artizarrak dirdiratzean, Evandro-k bere arkadiar herria Tiber ertzetan biltzen zuen garaietan bizi izan zela iruditzen zitzaion batzuetan; edota amets lauso bat gogora ekarrita, mugarik gabeko zeruertza begiztatzen zuela iruditzen zitzaion beste batzuetan —barrenean arkitektura liluragarri eta monumentalak eta guzti ikusten zituela—; zenbaitetan, argiz beteriko herrialdea non altxatzen baitziren marmolezko zutabeak, arkupe zuriak eta velarium purpurakarak golko ozen eta urdin baten bazterretan.

Existentzia honetan, bi pentsamendu izan dira haren izpiritua menperatu dutenak: Maitasuna eta Heriotza.

Maitasuna, haragiaren tirania eutsiezinarekin, piztien muturrak hezitzen dituen Maitasun supiztaile eta zoroa, basoei orro eta ulu eragiten diena; Maitasun ahalguztiduna, jainkosarik ederrenaren erritualean santifikatuta (eta zeinaren borondatea bere odol-taupadetan sentitzen zuen: odolean izadiaren bizi osoa sentitzen baitzuen; sentimene-tan, munduaren sugar bizi-emailea. Eta Heriotzak, dardar eragiten ziona; Heriotza, lirikoak azaldu bezain zurbila, gauean alderrai, sorgindutako begetalak loratzen dituen eta txakurrei ikaraz intziri eragiten dien Hekata-ren babespean.

Bigarren inpresioa gizon harrigarri harekin izandako elkarrizketa izan zen...

Varo-k Paulo ezagutzen zuen —sekta be-riaren predikatzaila, alegia—. Paulo kartzelan izan da, eta aske utzi dute; bere doktrinaren egiazkotasuna aldarrikatzen du eragozpenik gabe. Etxean bizi da lasai asko, bere kofradiako kideek bisitatzen dutela. Varo-k hitz egin dio, gai filosofiko bat edo beste eztabaidatu dute elkarrekin. Gizon gaitz eta burugogorra kausitu du —keinu indartsu asko egin eta begirada suntsigarriak jaurkitzen dituen gizon bat—; zakartasun, burugogortasun, suntsigarritasun hartaz harantzago, ordea, erleburrumba leuna entzutea iruditu zitzaion.

Nereo-k, txaluparen marinela, Pauloren etxeraino gidatu zuen. Eta Paulok ordura arte

harentzat ezezaguna zen unibertsoko atea ireki zizkion begi aurrean.

A, izan ere, berak hainbat alditan pentsatu zuen, bai, bere barruko tximeleta gardenari buruz, eta lorategi batetik jira-biraka hegaldatzen zela amestu zuen behin (lorategi bat non platano platonikoen hostailak fintasun handiko aurak eskegita zeuzkan... Gero, txori estoikoren bat basotxotik atera eta bere abestia kantatzen zion...).

Tximeleta jira eta bira zebilen hegan, psike gardenean zehar, eta lorategi ederretik nahiko hurbil adarren solasa entzuten zuen. “Jakizue, esaten zuten, umeak gaur bertan hasi direla Estigia-ko igel beltzen lepotik barre egiten..., guk badakigu txalupan zihoan agure bizarduna ur goibeletan ito dela. Biziazen haria moztean, atsekabea! oboloa eskui-nean estututa daramanarentzat...”

Eta beste ezpain batzuetatik beste hitz batzuk entzun zituen. Norbaitek —ikaskideren bat— behin gogoeta eragin zion esaldi laburren bidez: Heriotzaren ondoren, dena amaitzen da; baita heriotza ere. Jupiter oso zahartuta zegoen, ezin zuen antzinan bezala ugaltu. Lege Papia, berari ere, egokitu egin zitzaion. Jainko zaharrak zegoeneko dardar egiten zuen, beldur baitzen, zahartzaroan, hankak ahuldurik, edo tronuak ankilosaturik, burusoil, bekainak jasotzeko ere indarrik gabea, norbait helduko ez ote zen, bera baino indartsua-

goa, eta garai batean berak Saturno-rekin egin zuena berarekin egingo ez ote zuen.

Etxeetan, esaterako, lare jainkoek ez zuten bertuterik bat ere, eta mutuak eta gorrak zirela ematen zuen. Bat-batean, hitz orakuluarrak isilik zirauren. Behetik, era berean, zurrumurru baxua, kexak eta aieneak iristen ziren. Benetako jainkoak zesarrak ziren...

Aurrean zegoela, Paulok bere trumoi-hotsa bidali zion. Varo, zuzendaritza izpiritualik ezagatik, bere barruan iratzartzen zen artegatasunaren zorioneko uneen ostean, izpirituko atsekabe bat-batekoak zirela-eta kexatu egiten zenez, Pauloren begi-ninietan ikusi zuen bi izar misterioetsuren jaiotza bezalako zerbait, eta haren buruaren inguruan eguzki-lurrin antzeko zerbait; eta aurrean zegoela, filosofo berriak bere trumoi-hotsa bidaltzen ziola entzun zuen.

—Egarri zarete!, ordea begira ezazue, ezen, edalontzia husteko ezindurik zaudetela Tantalo bezala, loturik Prometeo bezala. Gizon arbuiatuaren jakituria —Jainkoaren jakituria— eduki nahi duzue. Hori da egarria aseko dizuena, hori da ezkutututako eta bizkortasun miresgarriz jositako ura. Egia Jainkoarengan baino ez dagoela, Jainkoarengana iristeko izpirituan zehar gora egin behar dela, iragartzen dizuet nik. Zuen bizitza idoloen omenez kontsokratu duzue. Kontuz ibili idoloekin! Lorez koroatzen zarete eta ardo-kopak husten dituzue,

mende honetako printzeen jarraitzaile duin horiek. Kristo, gero? Jainko Jauna, gero? Bere martirioarekin purpurakara bilakaturiko haren hitzaren miresgarritasunak, gero? Utz itzazue munduaren gauza hutsalak, harrokeria eta erokeria eta zitalkeria eta ustelkeria direnak. Nik zuri esaten dizut, erromatarra zaren horri, mesprezitzen duzun juduari eta imitatzen duzun grekoari esaten diodana. Zuen jainkoak hodeiak bailiran igaro dira: Kristoren Jainkoa da Jainko bakarra. Bera bere izpirituaz, ez munduaz, errebelatu zaigu; ontasunaren eta egiazkotasunaren su txit santua da, haren Izpiritua.

Eta ostera ere, nola Varo-k hitz egin zion, adi-adi entzun eta gero, bere bi pentsamendu finkoei buruz, maitasunari eta heriotzari buruz alegia, erantzun egin zion:

—Haragia! haragia! haragia! Behin, nire guda zaldian nihoala, baso lasai eta usain gozoz beteriko batean, Pan zure jainkoa ikusi nuen zuhaitz erraldoi baten erroan eserita, bere xirula jotzen. Soinua entzuteko, hurbileko iturrietatik ninfak ateratzen ziren. Eta akerra-usaina atzematen zen baso osoan. Halakoa da apatx arrailatuaren jainkotasunari darion lurrina, halakoa da zure maitasunetik hedatzen den usain gozoa: Haragia! Haragikoiak zarete; zuen sexuek menperatzen zaituztete. Itsasoko indarren gatibuak zarete, euren sasi grinatsuekin kateatzen zaituztelarik. Bai; zuen gorputza kalteari lotuta dago, bere benetako helburua gure Jauna izan arren. Zuen gorputzak ez du larrua jotzeko borroka

helburutzat hartzen. Jainkoa gorputzarentzat eta gorputza Jaunarentzat da. Bizi-lorea ez da ez Pan-ena, ez Venus-ena, ez Apolo-rena, ez Ekialdeko idoloak bizkortzen dituzten izpiritu gaiztoena: Jaunarena da. Maitasuna!, maitasuna Izpirituarena da, Izpirituaren omenez egindako sagarapena da, Izpirituaren sugarra. Zuk maitasunean pentsatzen duzu odolaren sukarra eta gorputzaren beharra izango bailitzan: nik diotsut, ezen, larrua jotzen duenak bere gorputz beraren aurkako bekatua egiten duela.

Eta Varo-k trumoiaren aurrean leun xuxurlatu zuen:

—Baina, begira ezazu ugaldtu eta ernaltzen duen Maitasunaren guztiahaltasuna nola esertzen den gauza guztien gainetik, eta gauza guztiak berari loturik daude. Zer dela-eta, hitz-eder eta jakintsua izanik, predikatzen duzu naturaren aurka? Hitz horiekin joango al zara habietako usoengana eta Hirkania-ko tigreengana? Hitz horiek esango al dizkiezu itsasoko arrainei, lurreko haziei eta olerkari koroak ematen dizkieten mahats-parra lurrint-suei? Ni olerkaria naiz, jauna, eta zure Jainkoak, aitor dizut, ezpainetatik emakumeak eta arrosetatik kalizak kentzen badizkit, triste eta beldur utziko nau.

Gero, bere tupusteko ahuldadeak eta laguntza aurkitzeko zeukan desioa agerian jartzen jarraitu zuen. Egia zen gurtzako sakrifizio eta zeremonietan parte hartzen zuela, eta bere otoitzak jainkoen ido-

loei zuzentzen zizkiela; ordea zalantza zegoeneko bere arimaz jabeturik zegoen eta jainkotasun babesleak ahotsik eta izpiriturik gabeko irudiak iruditzen zitzaizkion. Bere filosofiari dagokionez..., existentzia haizea bezain iheskorra zen eta udaberrian lorea eta udazkenean fruitua bildu beharra zegoen. Zer zekarten kristautasunaren iragarleek? Hura, orduan, Heriotzaren eta Minaren aldeko gurtzaren erlijioia al zen?

Paulok, ahots larriz eta sakonez, beheko oihuei buruz, tristen eta zapalduen erostei buruz hitz egin zion. Zapalduak eta tristeak kontsolatzen zituen erlijioia iragartzen zuen berak. Errainu kontsolagarrien inbasioa iragartzen zuen mezularia baino ez zen. Galilea-ko Artzain onak munduaren argia zekarren. Ez zen greko, judu, erromatarrarentzako argia, grazia unibertsala baizik. Inperioaren goitik, zesarren tronuetatik trumilka erortzen zen ustelkeriari eusteko, paganoen moralala ez zen aski gotorra izan. Kristautasunak dei egiten zien behartsuei, Jaunaren babespean anaitasun-agapean biltzera, Jaunaren izpiritua unibertsoaren gainean ba baitzeturren, bihotz guztien barrura sartuz...

Eguzkia ordurako aterata zegoen. Varo-k handik gutxira Axio, zenturioia, bere bila joango zela gogoratu zuen, harekin joatekoa baitzen Zesarrek Capri-n eskaini behar zuen jaira.

Tiberio-k bazuen olerkariaren berri eta gauza jakina zen hura bere banketeetara gonbidatzeko gogo bizia zuela.

Tiberio! Izen horrek gogora ekarri zizkion Paulo-k behartsuen sufrimenduei buruz esandakoak; anaitasun unibertsala Jainkoaren babespean, gizarte-altueraren hilketak, urrez jantzitako bizio inperialak; bien bitartean, zergek itota, herriak sufritu egiten zuen, olatuaren xuxurlaz xuxurlatu egiten zuen, han behean... Bere jentil-bihotza, bere olerkari-bihotza, besteen minak sentitzeko gai zen, eta lehen urteetako epikureismoa osorik blaitu egiten zitzaion orain esklabuekiko eta txiroekiko urrikaltasun sakonez... Gosetiak eta miserableak baziren; bien bitartean, zentzugabeko ahaltsuen egoitzetan Fasioz harantzagotik ekarritako jakiak, erditzeen herrialdetik ekarritako animaliak, ozeanoko itsasertz urrunetan lortutako maskorrak eta elikagaiak irentsi egiten zituzten, geroxeagoko orgietan okaztatzeko... Hark berak, ez al zuen behin baino gehiagotan bere sabela giza-haragiaz (esklabu-haragiaz) elikatutako itsasugeekin gozatu?...

Halaxe jarraitu zuen bere gogoetan sartuta, harik eta urrats-hotsak eta agur esaten zion ahots ezagunak bere barruko pentsamenduetatik aterarazi zuten arte

Axio zen.